



Artza Pelota Elkarteko 22 pilotari gaztek Retegiri pasabidea egingo diote.

Retegiri omenaldi beroa

Esku pilotaz gain, txirrindularitza eta estropadak ere izango dira

Kirola eta jaietako parrandak sarritan ez dira elkarren lagun handiak izaten, baina Bermeoko andramariak erakusten dutenaren arabera, biak egin daitezke. Gaur gauean, adibidez, Artza frontoian pilota partiduak eta parrandetako algarak izango dira, Artza Pelota Elkartek omenaldia egingo

baitio Julian Retegiri. Elkarteko presidente Ilario Aurrenetzek zera adierazi digu: «Omenaldi polita antolatu diogu, pasadizo askorekin, eta ikusi ez diren gauza bereziak agertuko dira». Ez digu zehaztasun askorik eman; «nahiago dut eguna iritsi arte ezer ez esatea eta bertan ikustea».

Hala ere, gertatuko diren zenbait gauza kontatu dizkigu. Horien artean, Artza Pelota Elkarteko 22 pilotari gaztek Retegiri pasabidea egingo diote, eta bertatik igaroko da. Bestalde, Bermeoko margolari bat goitik beherako olioeko koadroa egiten ari zaio, eta oparitu egingo diote.

Eta pilotari bati egindako omenaldian, ezin partidurik falta. Lehia polita ikusteko aukera izango da gaurkoa; Retegi II.a Zeurraren aurka.

Ilario azaldu digunez, Bermeo beti izan da Retegi zalea. Hori dela eta, «bere jarraitzaileak oso pozik daude Retegi hona etortzeaz». Izan ere, Retegi

azkenaldi honetan Hego Euskal Herriko hiriburuetan jokatzeko ari da; Iruñean, Gasteizen eta Donostian, eta, Ilario adierazi digunez, «Bizkaian, Bermeon jokatu du». Bere esanetan, Retegiri asko gustatzen zaizkio Bermeoko zaleak. «Adituak direla esaten du; batez ere ez delako diru asko jokatzeko, ez, behintzat, beste herrietan beste. Hori dela eta, zaleek joko polita ikusi nahi dute, eta ez soilik edonola irabaztea», baieztatu digu Ilario.

Baina gaurkoa ez da andramarietan izango den pilota partidu bakarra. Izan ere, Ilario kontatu digunez, Bermeon betidanik jokatu izan dira pilota partidu asko. «Inguru honetan, duela 15 urte, Bermeon jokatzeko ziren partidu gehien». Jaiak ere horren adibide dira. Bihar, Open Bizkaia Txapelketako partidak jokatu dira. Bestalde, Eupeme Deunaren egunean, esku pilota partidu nagusiak jokatu dituzte: Berasaluze VIII.a-Paskual bikoitza Koka-Pinedoren aurka. Eta egun horretan bertan, partidu nagusia jokatu dute Unanue eta Armendarizek, Olaizola II.a eta Otxandorenaren aurka.

Estropadak eta txirrindularitza

Baina andramarietan ez da soilik esku pilota izango. Estropadak beti izan dira jaietako hitzordu garrantzitsuenetako bat; aurtengo hilaren 13an jokatu da Bermeoko Uria XIX. Ikurrina, Euskal Arraun Federazioak egun hori jarri duelako. Beraz, egun horretan Ligako 12 trainerurik onenak ikusteko aukera paregabea izango da.

Beste alde batetik, eta askotan aipatzen ez den arren, txirrindularitza ikusteko aukera ere izango da. Hilaren 14an, junior mailako proba izango da, erlojuaren kontra: Almikeko igoera (16:30). Eta, hurrengo egunean, hilaren 15ean, goizeko 10:00etan, 41. Sollube Zirkuitua 23 urtez azpikoentzat.

Leandro Gómez, S.L.

Indusketak eta baso berritzeak

- Herri lanetan orotariko indusketa • Lur berritzeak
- Lurren mugimenduak • Maitagarria berritzea

Askatasun Bidea, 24 solairuarte - Gonzalo Nardiz plaza - 48370 BERMEO
Tel.: 946 187 737 - Faxa: 946 884 461 - Mug.: 699 467 185 - 86
Pab.: la Flecha - Bolumburu auzoa, 18-1, behe 2 - 48330 LEMOA - Tel.: 946 312 526
E-mail: excgomez@euskalnet.net

Txiriboga

Girorik onena gau-pasa egiteko

Cardenal Mendoza, 5 - Tel.: 94 688 24 12 - BERMEO



Gibeles erretea

ESPEZIALITATEAK
OKELA eta ARRAIAK PARRILLAN

Arene auzoa Tel.: 94 688 16 39 BERMEO




BASKOLOR FOTO BONILLA

ZERBITZU PROFESIONALAK
ARGAZKI ETA BIDEOA
URDAIBAIO ARGAZKIAK SALTZEN DIRA

Zentrala:
Adolfo Urioste, 4
☎ 94 625 44 32
Faxa: 625 08 58 - GERNIKA
Eskoikiz Grla., 5
☎ 94 688 25 75 - BERMEO


Sabino Arana Goiri etorb., 2
☎ 94 684 28 67
LEKEITIO
Intxausti, 18
☎ 94 688 54 60 - BERMEO

0-16 URTERARTEKO KALITATEZKO
HEZKUNTZA EUSKALDUNA



TEL.: 94 618 75 93

KALITATEZKO PRESTAKUNTZA ETORKIZUNERAKO GARANTIA



Askatasun Bidea, 13 Bajo, Dch
48370 Bermeo - BIZKAIA
Dep. Informática: 94 618 77 29
Dep. Reprografía: 94 618 72 25
D. Gráfico y Rotulación: 94 618 72 26
Dep. Comercial: 94 618 68 49
e-mail: art-print@jet.es